ERRENTERIA
UDALA
Giza Baliabideak / Recursos Humanos

Errenteriako Udala
Zbk./ Nº 2022-3721
Data /Fecha 2022/07/21 10:29
Irteera / Salida

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022RPOL0040
**Gaia/**Asunto**:** Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa: 2020-2024 / Programa de Racionalización de Recursos Humanos: 2020-2024
**Eskatzailea/**Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/**DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

**JAKINARAZPENA**

**Udalbatzarrak, 2022ko uztailaren 19an ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu zuen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:**

**“9. Propuesta: Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa: 2020-2024. (2022RPOL0040)**

Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 95. eta 96. artikuluek pizgarriak arautzen dituzte erretiro aurreratua hartzeagatik, prestazio pasiboen babes-sistema osagarriari eta bestelako asistentzia-hobekuntzei buruzko Akordioaren III. tituluaren barruan.

Artikulu horiek garatzeko eta aplikatzeko, Udalbatzak, 2021eko urtarrilaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa onartu zuen. Programa hori Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren eranskin gisa gehitu zen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2021eko otsailaren 22an.

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programan jasotako giza baliabideen neurriak udal langileen erretiro aurreratua sustatzera bideratuta zeuden, eta horien artean erretiro aurreraturako prima batzuk sartu ziren gizarte-ekintzako neurri gisa, erretiro aurreratu boluntarioetan erretiro-pentsioaren oinarri arautzaileari aplikatu beharreko koefiziente murriztaileek pentsioan eragindako galera konpentsatzeko, baita udal plantilla birdimentsionatzea eta gaztetzea sustatzeko ere; hori guztia abuztuaren 2ko Funtzio Publikoa

**NOTIFICACIÓN**

**El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria de fecha 19 de julio de 2022 adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:**

**“9. Propuesta: Programa de Racionalización de Recursos Humanos: 2020-2024. (2022RPOL0040)**

Los artículos 95 y 96 del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria regulan las primas por jubilación anticipada, dentro del Título III del Acuerdo, relativo a el sistema protector complementario de prestaciones pasivas y otras mejoras asistenciales.

Para el desarrollo y aplicación de dichos artículos, el Pleno de la Corporación mediante acuerdo adoptado el 26 de enero de 2021, aprobó un Programa de Racionalización de Recursos Humanos que se incorporó como anexo al Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal municipal, y fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 22 de febrero de 2021.

Las medidas de recursos humanos recogidas por el Programa de Racionalización de Recursos Humanos se encontraban destinadas a incentivar la jubilación anticipada del personal municipal, y entre las mismas se incluyeron unas primas de jubilación anticipada en calidad de medida de acción social, al objeto de compensar la pérdida en la pensión de jubilación ocasionada por los coeficientes reductores aplicables a la base reguladora de la misma en las jubilaciones anticipadas voluntarias, así como incentivar el redimensionamiento y

ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3

Erreformatzeko 30/1984 Legearen 21. xedapenak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22.1 artikuluak emandako babes juridikoan oinarrituta.

rejuvenecimiento de la plantilla municipal; todo ello en base a la cobertura jurídica otorgada por la disposición 21 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Reforma de la Función Pública, y artículo 22.1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Publica Vasca.

2022ko apirilean, erretiro aurreraturako primei buruz Auzitegi Gorenak emandako beste bi erabaki judizialen berri izan zen, zehazki, 2022ko martxoaren 16ko eta 2022ko apirilaren 5eko epaien berri.

En el mes de abril de 2022 se tiene conocimiento de dos nuevos pronunciamientos judiciales del Tribunal Supremo en materia de primas por jubilación anticipada, en concreto, las Sentencias de 16 de marzo de 2022, y 5 de abril de 2022.

Aurreko epaiak aztertu ondoren, Errenteriako Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan arautako erretiro aurreraturako primen legezkotasunari buruzko zalantzak sortzen dira, baita epai horiek primen gainean izan ditzaketen ondorio juridikoei buruzkoak ere, eta gai honen inguruan txosten juridikoa eskatzen da.

Analizadas las anteriores sentencias surgen dudas en relación a la legalidad de las primas por jubilación anticipada reguladas en el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Errenteria, y de los posibles efectos jurídicos de dichas sentencias sobre las mismas, y a tal efecto se solicita un informe jurídico.

2022ko uztailaren 8an Giza Baliabideetako Arduradunak eta Idazkari Nagusiak txosten juridikoa idatzi dute, eta bertan hurrengo gogoetak jaso dira:

Con fecha 8 de julio de 2022 la Responsable de Recursos Humanos y la Secretaria General emiten informe jurídico, y en el mismo se recogen las siguientes consideraciones:

Auzitegi Gorenaren epaiak aztertu ondoren, Auzitegiak berak finkatutako jurisprudentziak ezartzen du toki-erakundeen lan-baldintzen akordioetan aurreikusitako erretiro aurreratuaren ziozko sariek, beren izendapena edozein dela ere, ordainsari izaera dutela, hau da, ez direla gizarte-ekintzako neurriak, eta, ondorioz, zuzenbidearen araberakoak direla ulertu daitekeela soilik toki-administrazioko funtzionarioen ordainsariari buruzko irismen orokorreko lege-arau batean oinarritzen diren heinean. Kasu hauetan horrelakorik identifikatu ez denez, ondorioztatu daiteke akordio horiek baliogabeak direla; izan ere, abuztuaren 2ko 39/1984 Legearen 21. xedapen gehigarriak, Funtzio Publikoaren Erreformarako neurriei buruzkoak, funtzio publikoaren alorreko oinarrizko legediaren barruan inkardinatuak, enplegu-planen erregulazioa sartu zuen, eta erretiro aurreratua sustatzea aurreikusten zuen, baina ez zuen erregulazio

Analizadas las Sentencias del Tribunal Supremo, la jurisprudencia fijada por el mismo establece que las gratificaciones, cualquiera que sea su denominación, por jubilación anticipada previstas en acuerdos de condiciones de trabajo de las entidades locales tienen naturaleza de retribución, es decir, no son medidas de acción social y, en consecuencia, solo pueden ser consideradas ajustadas a derecho en la medida en que tengan fundamento en una norma legal de alcance general, relativa a la remuneración de los funcionarios de la administración local, que al no haberse identificado en estos casos, conlleva la conclusión de que dichos acuerdos son inválidos, pues la disposición adicional 21 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública, incardinada dentro de la legislación básica en materia de función pública, introdujo la regulación de los planes de empleo y preveía la incentivación

ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3

zehatzik egin neurri horiek ordainsari-izaera izan lezaketen kasuetarako, eta, horregatik, ez dakar ordainsari horien irismen orokorreko lege-estaldurarik.

de la jubilación anticipada, pero no hizo una regulación precisa para el supuesto de que dichas medidas tuvieran carácter retributivo y, por ello, no supone cobertura legal de alcance general de dichas gratificaciones.

Beraz, Auzitegi Gorenak berretsi egiten du eta, bereziki, arlo horretan duen doktrina orokorra argitu egiten du. Doktrina hori edozein toki- eta talde-administraziotan aplika daiteke.

Por lo tanto, el Tribunal Supremo viene a ratificar y especialmente a clarificar su doctrina general en esta materia, aplicable a cualquier administración local y colectivo.

Auzitegi Gorenak berariaz adierazten du oinarrizko arau bat egon behar duela, eta kontuan hartuta tokiko funtzionario publikoen ordainsari-erregimena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 93. artikuluan jasotako Estatuko oinarrizko legedian arautzen dela, ez ditu pizgarri ekonomiko horiek aurreikusten, eta, beraz, amaitutzat ematen du Euskal Autonomia Erkidegoko legeriaren esparruan enplegu-plan estrategikoen balizko estaldurari buruzko eztabaida.

El Tribunal Supremo indica expresamente que debe haber una norma de carácter básico, y teniendo en cuenta que el régimen retributivo de los funcionarios públicos locales se regula en la legislación básica estatal recogida en el artículo 93 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, no prevé dichos incentivos económicos, por lo que entiende cerrado el debate respecto a la posible cobertura de los planes estratégicos de empleo, en el ámbito de la legislación autonómica vasca.

Nabarmentzekoa da Bilboko eta Basauriko udalen kasuan Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan bat zegoela, erretiro aurreraturako primen ordainketari estaldura ematen ziona. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenaren iritziz, ez da bidezkoa prima horiek ordaintzea, lehen aipatutako legezko estaldurarik ez zegoelako.

Cabe destacar que en el caso de los Ayuntamientos de Bilbao y Basauri existía un Plan de Racionalización de Recursos Humanos que daba cobertura al abono de las primas por jubilación anticipada, y aún así, el Tribunal Supremo ha considerado que no procede el abono de las mismas al no existir la antes meritada cobertura legal.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 22. artikuluak giza baliabideak arrazionalizatzeko programak antolaketarako tresna gisa jasotzen ditu, giza baliabideak ahalik eta ongien erabil daitezen lortzeko, eta horietan sartu beharreko neurrien artean erretiro aurreraturako pizgarriak aurreikusten ditu.

La Ley de la Función Pública Vasca en su artículo 22 contempla los programas de racionalización de recursos humanos como instrumentos organizativos al objeto de lograr una óptima utilización de los recursos humanos, y preve entre las medidas a incluir en los mismos los incentivos a la jubilación anticipada.

Hala ere, aipatutako testu autonomikoa Estatuko oinarrizko legedian (30/1984 Legearen 21. xedapenean) jasotako aurreikuspenen kopia bat da, eta, beraz, Auzitegi Gorenaren erabakiei jarraiki, ez da legezko sostengua ordainsari-kontzeptu horretarako, toki-administrazioetako langileen

Sin embargo, el citado texto autonómico se trata de una reproducción de las previsiones recogidas por la legislación básica estatal, disposición 21 de la Ley 30/1984, de forma que siguiendo los pronunciamientos del Tribunal Supremo, tampoco constituye sustento legal para dicho concepto

ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3

ordainsari-araubideari aplikatu beharreko legediaren barruan garatu beharko litzatekeelako.

retributivo dado que sería preciso su desarrollo legislativo dentro de la legislación aplicable al régimen retributivo del personal de las administraciones locales.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, orain arte beste zentzu bateko erabakiak eman baditu ere, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa edo Plana onartuta dagoenean erretiro aurreraturako primak legezkoak direla ulertuta, bere irizpidea Auzitegi Gorenak 2022ko apirilaren 5eko epaian eskaintzen duenera egokitu du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2022ko 191/2022 epaia, apirilaren 26koa, eta geroago eman dituen beste batzuk.

El Tribunal Superior de Justicia del Pais Vasco que hasta la fecha había dictado pronunciamientos en otro sentido, entendiendo la legalidad de las primas por jubilación anticipada cuando existiese Programa o Plan de Racionalización de Recursos Humanos aprobado, ha acomodado su criterio al que ofrece el Tribunal Supremo en la sentencia de 5 de abril de 2022. A tal efecto la sentencia del TSJPV 191/2022 de 26 de abril de 2022, y otras que ha dictado posteriormente.

Beraz, Errenteriako Udalak, gainerako administrazio publikoek bezala, epaitegi eta auzitegiek emandako jurisprudentziara egokitu behar du bere jarduna, eta, bereziki, Auzitegi Gorenak legeen interpretazioan emandako jurisprudentziara, kasu honetan bezala, izatezko identitatea eta arauaren aplikazioa dagoenean.

Por lo tanto, el Ayuntamiento de Errenteria al igual que las restantes Administraciones Públicas debe acomodar su actuación a la jurisprudencia dictada por los Juzgados y Tribunales, y en especial, a la jurisprudencia dictada por el Tribunal Supremo en la interpretación de las leyes cuando existe una identidad de supuesto de hecho y aplicación de la norma, como es en este caso.

Gaiaren berri eman da 2022ko uztailaren 12ko Negoziazio Mahai Orokorrean.

El asunto se ha informado en la Mesa General de Negociación de fecha 12 de julio de 2022.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

* 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuturen Legearen testu bategina onartzen duena (EPOETB).

* 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.

* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

* 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Xedapenen Testu Bategina onartzen duena

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

* Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP).

* Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública

* Ley 7/1985, de 2 de abril, que regula las Bases del Régimen Local

* Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en materia de Régimen Local

ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3

* 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoa.

* Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

* 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

* Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

* Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea

* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

* Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa.

* Acuerdo regulador de las condiciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria

Giza Baliabideetako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Giza Baliabideetako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Recursos Humanos y la conformidad dada por La responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

2022ko uztailaren 13an, Giza Baliabideetako Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Visto que en fecha 13 de julio de 2022, a propuesta de la Concejala Delegada de Recursos Humanos, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta Elkarrekin Errenteria) eta 3 abstentziorekin ( EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) y Elkarrekin Errenteria ) y 3 abstenciones ( EAJ/PNV).

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

LEHENENGOA.- INDARGABETZEA Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 95. eta 96. artikuluen aplikazioa, eta baita ere Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa 2020 – 2024, erretiro aurreratuagatiko primak, zeina aipatutako akordio arautzaileari erantsi baitzitzaion eranskin gisa (2021eko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuraren Akordioa).

PRIMERO.- DEROGAR los artículos 95 y 96 del Acuerdo regulador de la condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria, asi como Programa de Racionalización de Recursos Humanos 2020 – 2024, Primas por jubilación anticipada, que se incorporó como anexo al citado acuerdo regulador (Acuerdo Plenario de 26 de enero de 2021).

BIGARRENA.- Akordio hau Errenteria Musikal Udal Patronatuari, Udal Kontu-hartzailetzari eta Langileen Batzordeari jakinaraztea.

SEGUNDO.- Comunicar el presente acuerdo al Patronato Municipal Errenteria Musikal, a la Intervención Municipal y a la Junta de Personal.

ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3

HIRUGARRENA.- Akordio honen argitarapena burutzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Errenteriako Udaleko Gardentasun Atarian."

TERCERO.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y Portal de Transparencia del Ayuntamiento de Errenteria."

**Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.**

**Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.**

**NON: Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegia.**

**LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.**

**EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.**

**PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.**

**Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.**

**No obstante, con caracter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.**

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkariordea / La Secretaria accidental

Begoña Bueno Barranco

- **ERRENTERIA MUSIKAL UDAL PATRONATUA**
- **KONTUHARTZAILETZA**
- **PERTSONAL BATZORDEA**

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9924f016-dc25-4034-834b-742a5ede1be3**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022RPOL0040-JAKINARAZPENA PLENO AKORDIOA/NOTIFICACIÓN ACUERDO DE |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: BEGOÑA BUENO BARRANCO - 34104036G
Data / Fecha: 2022/07/21 08:39:26